



Udabarriko egun eder baten, Jesus on-ona, bere ikasle maitea lagun ebalá, ibillaldi zoragarri bat egi-

tekotan egoan. Egun aretan, egunsentia bere argi biguna emoteagaz batean, Jesus eta Juan, Jerusalem'dik Belen'erantza abiau ziran. Eta bide zidorrak eta lora bitxiz txukunkiro apainduriko landatxuak oinkada legunez igarorikoan, Jesus eta Juan errekatxu baten ondora eldu ziran. Une aretan Erbeke, Belen aldeko neska gaztetxua, erreka-ertzean urari begira aurkitzen zan. Neskatillatxua, bere begi illuna erreka barrura zuzenduagaz, ur gardenaren argitasunera, bere arpegiaren irudia ikusten eban.

¡Oi ze polita nazan! —esaten eban—. Neure gurasoak nundik ekarri nabe baña? Jerusalem'dik ala eguzkiaren egaletik?

Neskatillatxua autu orretan ziarduala, Jesus eta Juan erreka-ertzerá urreteratu ziran. Eta Jesus on-onak itz orrek entzutean ixillunatxua egin eban. Gerotxuago, nozbait izketan asita, neskatillatxuari abots eztsiz esan eutson:

—Erbeke, zerutik etorria zara. Beraz zerura jua bear dozu, Jaungoikoarena za-

ra-ta. Jarraitu egidazu ba. Atoz Nigaz.

Ta beste barik, neskatillatxua Jesus'en jarrai jua zan, Jesus'en ofiatzetan bere ointxoak iminten ebazarik. Jesus onaren oinkada bakotxean larrosa ederrak sortzen ziran eta neskatillatxua lora ganietatik pozpozez jua zan.

Alako batean, Belen-era eldu ziran. Eta Jesus maitea bere erritarren artera jua da, guztien onerako itzalditxu samur bat egiten asi zan.

—Zorionekoak biotz garbidunak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta —arretaz esaten eban—. Zorionekoak, bai, gorputz ta anima garbidunak, oso-osoa Jaungoikoarenak izango dira-ta.

Onetan Erbeke, lagun artetik arinka jua da, Jesus'en aurrera aurkeztu zan. Orduan Jesus maitegarriak, begirakune eztsiz bat egiñaz, bere esku garbi-garbiak Erbeke'ren ezpan bigunetara eroan ebazan. Eta ordu berean Jaungoikoaren arnasa deun-deunak neskatillatxuaren ariman lirio zuri eder-ederra sortu eban. Une aretan Erbeke'ren biotza ta arimea Jesus'en eskuetan geratu ziran. Ordunik oso-osorik Jesus'ena zan.

Arratsaldean, Jerusalem'era biurtzean, Jesus'ek Juan ikasle gazteari zelai eder bat erakutsiagaz,

Jesus'en maitetzalle zintzoa

Antzirudia

eta maitekiro begiratuagaz, esan eutson:

—Juan, zelai orretara begiratu egizu...

Eta Juan'ek, begiratzeagaz batean, zelai guztia larrosa ederrez ta lirio zuri-txukunez arrigarriri apainduta ikusi eban. Etorkizun guren eta miragarri baten zelai ederra zan. Ordu aretan Jesus on-onaren ezpan garbi-garbietan irribarrerik eztsizsua loratu zan...

Jesus maitea, nun-nai ta edonun, danari on egiten ibiltzen zan beti. Bere ibillaldi guztietan zeruko eskar eta mesedeak esku beteakaz banantzen ebazan. Geixoak osatzen, atsekabetuak poztuten, illak berbiztuten eta pekatariak bideoneratzen eta abar, egintzarik gorenengoetan zintzotasunik andienagaz ekin ebalá guztiok ondo dakigu. Ta olan da be, gizonak on egite orrek aintzat ez ebezan artu, eskar txarrik baltzenakaz Ongillerik andiena iraindu baño. Ori zala-ta, Jesus on-onak, mendi gallurrian zalarik, Jerusalem erri autuaren eskar baltza ikusita, negar gogotsu egin

eban. Jaungoikoa zan eta etorkizun guztia begi aurrean eukon.

Idatzita egoanez jazo biar zan. Olan da be, Jesus-en Biotz maitatia gizonaren zorriarrak osoan mindurik eukon. Aste Deuna, Nekaldi-astea, ur-urrean zan.

Abar-igandeko txalo ta goraltzeak Jesus laztanaren biotza askorik ez eben poztu. Gizonaren izatearen barri ondo ekian, bai. Asteko lenengo egunetan, erriko agintariak eta abar Jesus'en kaltez batzarrak iraduz egiten ifardu ziran. Eta guzurra, nas-tea ta gorrotoa aolkulari ebezalarik, epairik lotsagarriena biribildu eben. Beraz Jesus, Bildots errugabea, eriotzarik gogorre-nera epaitua izan zan. Eta epairik gaiztoe-na betetuko zan eguna oinkada odoltsuz etorran.

Egubeen Gurena egun ospetsuaren jarrai, Bariku Deuna laño-moltso illunen artean negar-intziriz agertu zan. Epairik lotsagarriena bere gain betetu bear zala-ta, larritasunez aurkeztu zan. Jesus'en aurka egoan guztia ezereztu gurean. Jesus ona baña, gizonaren onerako jasan bear zan guztia jasateko gerturik egoan. Maitasunez bete-betea zan. Orregaitik Jesus egun orretan, Gurutze aztuna sorbaldan ebalarik, gudari ta agintari amorratuen erdian Kalbariorantza abiau zan. Bere burua arantza zorrortez zulatuta, ta gorputz guztia zigorkada aztunez aulduta ebazararik, oinkada odoltsuz aurrera egiten eban.

Bere lagunik geienak ixi-ikara bildurgarrian or-emen bildurrez sakabana-tu ziran. Andra Maria ta beste emakume on batzuk bakarrik inguratu iakozan bere jarrai juateko. Erbeke neskatillatxua bere euren artian zan. Beñola, Belen-era bidean larrosa-bidetik pozez jarraitu eutson... Oraingoan barriz, neke ta samintasunen artean oñatz odoltsuetatik zintzo-zintzo jarraitu gura izan eutson. Bere biotza aspaldiz Jaunari emona zalako, Jaunari laguntzen zuti ta adoretu juan zan.

Bideko neke ta laztasunak eta gudari ta agintari gaiztoen egiñen bildurgarriak gorabera Jesus'en ondoan aurrera ta aurrera juan zan Kalbario mendira eldu arte. Eta antxe mendi-gallurrean Jesus maitegarria, Jaungoiko berbera, gurutzean ezkegita eriotzaren atzaparretan ikusi eban. Andra Maria ta Juan ikasle

maitea bere antxe ikusi ebazan atsekabearen negar-malko ugariak ixuritzen.

Jesus'ek, bere Ama garbi-garbia ikasle maiteari amatzat emon eutsonean, Erbeke'k bere une aretantxe Andra Maria bere amatzat berariz artu eban. Eta gero-txuago "Egarri naz" entzun ebanean, bere biotzean zztada onuratsu bat nabaritu eban. Jesus ona, biotzaen eta arimaen egarri zala baekian. Bere egarri bizia asetu-teko, biotz askoren eta arima askoren opariak bear ziran.

Itz ikutugarri orrek zirala-ta, Erbeke'k orduantxe bertan Jaunaren maitetzalle zintzo-zintzoa beti izateko asmu bikaña artu eban. Eta Jaunaren Gurutzetik eraztea ta bere obiratzea samintasunez ikusita gero, Andra Mariagaz ta Juan ikasleagaz batean, Jerusalem'era jatsi zan. Eta aurre-rantzean bere arimea birtute bikañakaz ederto apaindurik ebala, Andra Mariaren ondoan bizi izan zan. Baekian bai, Ama samur onen Biotz maitegarrian Jesus berbera edertasunez beterik egoala. Orregaitik Erbeke'k bere garbitasunaren lirio zuriederra Andra Mariaren ondoan txukundu ta loratu gura izan eban. Jesus'gana juateko Andra Maria zala biderik onena-ta.

MAÑARIKO ERROSE

